

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **2019ko bigarren hiruhilekoan hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatiko tasaren errolda fiskala behin betiko onartzea**

Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko otsailaren 27an hartutako eta 2020ko martxoaren 4ko ALHAOn (26. zk.) argitaratutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, 2019ko bigarren hiruhilekoari dagokion hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasaren zerga-errolda behin-behinean onartzeari buruzkoa (2019/1/S328 espediente), ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Erabaki hori behin betikoa da, eta argitara ematen da, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2020ko ekainaren 29tik 2020ko abuztuaren 28ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2019ko bigarren hiruhilekoari dagozkion hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatiko tasari dagozkion ordainagiriak.

Zergadunek Euskadiko Kutzaren Amurrioko Mendiko kaleko 1. zenbakian dauden bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte zerga-zorrak, astelehenetik ostiralera, 8: 30etik 10: 30era, epe horretan.

Epe hori igarotakoan, premiamendu administratiboko prozedura exekutiboa hasiko da, indarrean dagoen Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik, eta ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, gehienez ehuneko 20ko errekarquarekin, eta errekarqu hori bateragarria izango da luzapenekoarekin.

Horren berri ematen da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Amurrion, 2020ko ekainaren 11n

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**